

Michel Foucault: irudimen politiko berri bat

Bere heriotzaren 30. urteurrenean, irudi bat Michel Foucaulten pentsamendu politikoaren gaurkotasunari buruzko gogoeta hau abiatzeko:

1977 amaiera aldera sozialistak eta komunistak 1978ko martxoko frantziako hauteskunde orokorretara elkarrekin aurkezteko “programa bateratu” bat ari dira eztabaidatzen.

Unea iritsi da, batzuen iduriko, beharrezkoa den “ezkerraren batasuna” dela medio, 68ko maiatzeko errebolta garaipen elektoral eta instituzionalean bihurtzeko. “Letra larrizko politikaren” eta gauza serioen garaia da errealitatea eraldatzeko funsgabeak diren hainbeste autogestio, demokrazia zuzen eta hainbeste autoantolaketa ondoen.

Garai berean, bi argitalpenek, hezkuntza, osasun artapena, hirigintza, ingurumena edota lana bezalako gizarte arloetan engaiatutako pertsonen arteko topaketa bat antolatuko dute.

Michel Foucault, agian garaiko ortzi intelektualean zen izarririk distiratsuen, topaketan izango da “auzo medikuntza” tailerrean izena emanda. Le Nouvel Observateur aldizkariak (670 zkia.) hango lanak bukatu osteko bere irudipenak jasotzen ditu “Mobilizazio kultural bat” izenburuzat duen elkarrizketa laburrean. Beste gauza batzuen artean Foucaultek honela dio:

“Nik tailer horretan diren pertsonak bezalakoentzat idazten eta lan egiten dut, galdera berriak planteatzen dituen jende berri hori. Erizainen edo gartzela zaintzaileen galderak dira intelektualen arreta erakarri beharko luketenak. Pariseko intelektualitate profesionalak elkarri burura jaurtitzen dizkion anatemak baino mila bider garrantzitsuagoak dira”.


“Bi egunetako debate bizi eta eztabaida sakonki politikoetan zehar –botere, jakite, eta diru harremanak ezbaian jartzea baitzen egitekoa- “auzo medikuntza” tailerreko 30 partehartzaileetatik inork ez zituen “1978ko martxoa” edo “hauteskundeak” hitzak erabili. Hori garrantzizkoa eta esanguratsua da. Berrikuntza ez dator jada partiduetatik, sindikatuetatik, burokratietatik, politikatik. Kontua indibiduala da, morala. Jada ez diogu galdetzen teoria politikoari zer egin, tutoreak ez dira honezkero beharrezkoak. Aldaketa ideologikoa da, eta sakona”.

“Azken 15 urtetan mugimendu handi bat aktibatu da, non anti-psihiatria eredu den eta 68ko Maiatza momentu bat. Behinola gizartearen zorientasuna bermatzen zuten maila sozialetan, medikuak adibidez, gaur egun ezengonkor bihurtzen den biztanleria oso bat dago, mugimenduan jartzen dena, bilaketan, ohiturazko hiztegietatik eta egituretatik kanpo. Zera da... ez naiz iraultza kulturala esaten ausartzen, baina bai dudarik gabe mobilizazio kultural bat. Politikoki berreskurazina: nabari da eurentzat arazoa inola ere aldatuko zenik gobernu aldaketa bat egon balitz. Eta horrek pozten nau”.

Keinua guztiz probokatzaileria da. Filosofo handienarentzat garrantzitsuagoa da tailer xume bat sozialisten eta komunisten arteko “programa bateratuaren” gaineko eztabaida baino; tailer hori da 68ko maiatzarekin lerro zuzenean lotzen dena, eta ez ezkerreko frontearen balizko hauteskunde garaipena; berrikuntza politikoa balizko gobernu aldaketak epel uzten duen jende talde txiki baten eskutik. “Unearen mailan egotea” oso behean kokatzean bazetza bezala, “letra larrizko politika” benetan letra xehez idatziko balitz bezala.

Probokatzaileria bai, baina ez apetazkoa. Garaiko bere garapen teorikoekin guztiz bat dator Foucaulten keinua. Beraz, zer ulertzen zuen Foucaultek botereaz (botere politikoa ez bazen)? Nola pentsatzen zituen erresistentziak (partiduaren paradigmatik kanpo)? Zer zen beretzat ekarpen intelektuala emantzipazio praktikei dagokienean (ez bazen manifestuak sinatzea edo egoerari buruzko iritzia ematea)?

Boterea, jakitea eta erresistentziak funtsezko hiru arazo dira filosofo frantziarraren ibilbide osoan zehar. Ez naiz bere obran aditua, eta ez nintzateke lerro gutxi batzutan arazo horiekiko bere hausnarketaren konplexutasun guztia laburbiltzen ausartuko, baina gauza batzuk iradoki nahiko nituzke “mobilizazio kultural” horren balioa non datzan hobeto ulertzen saiatzeko eta azaltzeko ze zentzutan uste dudan gaur ere beharrezko zaigula.



Lehenik, *boterearen* kontua

“Pentsamendu eta analisi politikoan erregea ez da oraino gillotinatu”, idatzi zuen Foucaultek 1976an. Zer esan nahi du horrek? Foucault hor botere handientsu baten irudiaz ari da, leku jakin batean metatua, beti urrun eta goian dena, nondik bere borondatea bere mendekoei/biktimei bertikalki igortzen dien.

Erregea Estatuak, legearen aginteak edo klase dominazioak ordeztzen du, baina boterea ulertzeko modu bera islatuz: gizartearen gailurrean kokatutako “aginte gela” moduko batena hain zuzen. Foucaulten lan guztia eskema kontzeptual/mental hori haustera bideratzen da.

Figura handietan (Estatua, legea, klasea) metatzen den edo haietatik eratoritzen dena bezala baino, Foucaultek boterea “indarren eremu sozial” bezala pentsatzea proposatzen digu. Boterea ez da puntu subirano batetik jeisten; haatik, alde guztietatik

dator: milaka indar harremanek zeharkatzen eta eratzen dituzte hezkuntza, osasuna, hiria, sexualitatea edota lana ulertzeko gure moduak (praktikak).

Indar harreman horiek ez dira soilik modu juridikoetan kodetzen (legearen arabera egin eta egin ezin daitekeena), baizik eta gorputzak eta jarrerak arauetara (legeen bestelakoak) doitzen dituzten legeez haragoko prozedura infinituki anitzez osatzen dira. Har dezagun presondegi bat esaterako: legedia esplizituak presoaren bergizarteratzeko espazioa dela dio, baina eguneroko mila jardunbidek oso bestelako emaitza dakarte: markatzea, gaizkilearen estigmatizazioa, esklusioa. Boterearen analisi juridiko hutsa itsu zaio indar erabakigarri horiei.

Indarren eremu sozial horretan badira, noski, “trinkotze bereziko puntuak”: Estatu, legea, gizarte hegemoniak... Botere sarearen nodo handienak dira. Baina Foucaultek (ohiko ikuspegia irauliz) “forma terminal” edo azkenburukolez bezala pentsatzea proposatzen digu. Hau da, ez hainbeste botere-harremanen jokuaren kausa balira; efektu bezala baizik; Jatorrizko instantzia sortzaile lez baino, ondorengo eta eratorri bezala. Ingerada, isla, iceberg ertzak bezala. Estatu aparatuak, legeak eta gizarte-hegemoniak, eguneroko borrokaren agertokiko atzealde ilun eta borbokari horretan antzemangarriak diren forma ikusgarriak dira.

Forma terminalak bai, baina ez pasiboak. Boterearen figura ikusgarriak indarren eremu sozialaren emaitza dira eta han dira pausatzen, baina aldi berean finkatu egiten dute (ez hala ere behin-betiko). Hau da, hainbat indar-harreman zehatz eta tokian-tokikoak kateatzen dituzte, hala efektu globalak eta estrategia orokorrak sorraraziz. Honi buruz, 70 hamarkadako marxismo gailenduarekin eztabaidan, Foucaulten aipu argigarria: “Ez dut uste burges klasea denik (edota bere elementuetatik hura ala bestea) botere-harremanen multzoa inposatzen duena. Esan dezagun klase horrek bere onerako erabili eta aldatzen dituela, batzuk areagotzen eta beste batzuk indargabetzen saiatzen dela. Ez dago, beraz, [botere-harreman] guztiak emari edo jario balira lezirtetzen zaizkioneko [botere] foku bakarrik; klase sozial baten, talde baten, beste batekiko dominazioa ahalbidetzen duen botere-harremanen elkarkorapilatze bat baizik”.

Jordi Évolek Pepe Mujicari egin zion elkarrizketa famatuan, aurkezleak uruguaiako presidenteari ea bere hauteskunde-programa bete zuen galdetu zion: “Bai zera”, Mujicak barrez, “ze uste duzu, presidentea nahi duena egiten duen erregea dela?” Eta ondoren, nolazpait, Évoleri “irakaspén foucaultiano” bat ematen dio, esplikatuz nola botere politikoak egin eta egin ezin dezakeena indarren eremu sozialak baldintzatzen duela (neoliberalismoak bere neurrira eraikitzen duen egitura juridikoak, subjektu sozialen desio eta itxaropenekberaiek, etab.).

Boterea ez da okupatu edo bat-batean erasotu daitekeen leku nabarmenen batean aurkitzen den gauza bat: XX. mendeko paradigma iraultzaile hegemonikoa krisian sartzen da hemen. Indarren eremu sozialarekin harremanik gabe, leku hori hutsik dago eta botere hori indargea da. Guztia birpentsatu behar da berriz, ez ordea iraultzaren beharra baztertzeko, begirada berri batek bizkortu dezan baizik.

Bigarrenik, *erresistentzien* kontua

“Boterea non, erresistentziak han” dio esakun foucaultiano ezagun batek: boterea puntu bakar batean metatzen ez denaren ideia (buruzagiak, kasta politikoa, etab.), baizik eta

gizarteko bazter guztietatik sortzen eta ernetzen dela, ez da dominazioaren omnipotentziari buruzko tesi ezkorra. Aitzitik: boterea indarren arteko harreman bezala definitzeak ekintza baten eta beste baten arteko harreman bezala ulertzea esan nahi du. Aginte-ekintza bat eta erantzuten dion beste ekintza bat. Indarra ez da objektu pasibo baten gainean egiten, beti ekintzarako gai eta ustekabeko erantzuna emateko gai den beste indar baten gainean baizik.

1977ko elkarrizketa batean, Foucaultek "plebea" deitzen die erresistentzia guzti horiei. Lehenik, plebea, erantzun zehatz, tokian-tokiko eta kokatua da, bera bezala, zehatza, tokian-tokikoa eta kokatua den botere ekinza bati. Hor datza preseski bere ahalmena: gauzatzen den lekuan erantzuten dio botereari, ez beste inon. "Plebea gutxiago da botere-harremanen kanpoaldea bere alde erantzia baino, bere muga, bere kontrapuntua baino; boterearen zernahi aitzinatzeri erantzuten diona da, hartaz libratzeko".

Bigarrenik, plebea ez da errealitate soziologikoa (kondizio soziala edo interesak partekatzen dituztenak), baizik eta akats bat emandako identitateetan. Ez da ez herria, ez pobreak ezta baztertuak ere: "plebea dago gorputzetan, arimetan, norbanakoetan, langilerian, baita burgesian ere; baina hedapen, forma, energia eta murrizteztasun ezberdinekin". Ez dago bereizketabinariorik boterearen blokearen eta erresistentzien blokearen artean: botereak eta erresistentziek guztia (eta bakoitza) zeharkatzen dute.

Azkenik, plebea ez da substantzia, ekintza baizik. "Plebea ez da existitzen, baina badago plebea". Zera diogunean bezala: "adiskidetasuna ez da existitzen, baina adiskidetasun frogantzak daude". Gertatzen den zerbait da, edo besterik gabe, existitzen ez dena. Egitatea da, adierazpena, gertaera.

Antolatu al daiteke plebea, hain errealitate mugikorra, askotarikoa eta konplexua? Erantzuna baietz da. Botereak, hainbat indar-harreman zehatz eta tokian-tokikoak kateatuz eta korapilatuz estrategia globalak eragiten dituen bezala, erresistentziak ere "estrategikoki kodetu" daitezke ondorio orokorrak sorraraziz: iraultzak. Nola? Kontua da, antolaketaz pentsatzean gutxienez bi inertzia ekiditea: 1) sinplifikazioa (soilik berdina dena antola daiteke) eta 2) bereizketa (antolatzeko, erresistentziak garatzen direneko leku zehatzetatik "irten" beharra dago). XX. mendean zehar ezagutu izan ditugun "subjektu politikoak" (partidu politikoa edo talde armatua) eredu hori jarraitzen dute: beren buruak erresistentzien burutzat eta artikulaziotzat hartuz, egiazki espazio homogeen bezala eraikitzen dira, erresistentziak bizirik dauden munduetatik at, isolaturik.

Orduan? Kontua litzateke, antolaketa erresistentzia-puntu ezberdinen arteko "zirkulazio" moduan berrirudikatzea. Erresistentzien izaera barreiatua eta kokatua onartzea, ez saihestu beharreko oztopoa balitz bezala, potentzia bezala baizik. Erresistentziak forma zentralizatuen pean eta beren munduekin harreman organikorik gabe nola bildu pentsatu beharrean, pentsatzea nola eraiki "jakite batetik besterako lotura transbertsalak, politizazio puntuen artekoak, gurutzatzeak eta trukatzak".

Plebea bere erresistentzia praktikak jakinaraziz eta hedatuz antolatzen da. Ziurrenik, Foucaultek 1978ko tailer horiek hainbeste atsegin izan bazituen, erresistentziak beren ezberdintasunak eta mundu propioak parentesi artean ipini gabe elkar aurki zitezten espazio bat zabaltzen zutelako izan zen.

Azkenik, jakiteen kontua

“Lan teorikoren bat egiten saiatu izan naizen bakoitzean neure bizitza propioaren osagaietatik abiatuz egin izan dut, beti neure inguruan gertatzen ikusten nituen prozesuei lotuta”, zioen Foucaultek. Bizitako esperientzien argigarri, denboran eta espazioan benetan urrun joateko gai zen Foucault (aspaldiko mendeak, pertsonaia ilunak, testu galduak), baina bere erudizio guztia orainaldiko “arazoak, larritasunak, zauriak eta egonezinak” pentsatzearen zerbitzura jarrita dago.

Hanka bat kalean duzula pentsatzeko moduaren eta hitzez-hitzezko pentsatzeko moduaren arteko aldea da. Hitzez-hitz pentsatzean liburuek liburuetara igortzen dute. Hanka bat kalean duzula pentsatzean, liburuek bizitza indibidualaren eta kolektiboaren oihartzuna dakarte.

Foucault irakurri ondoren indartsuago, adimentsuago, alaiago egoten zara, nahiz eta berak guztia konplikatu besterik ez duen egiten. Nola liteke? Nire intuizioa honakoa da: pentsamenduaren pozak ez du ikustekorik atera ditzakegun ondorioen kontsolagarritasunarekin, geure kabuz nonbaitera heltzeko gai garela jabetzearekin baizik. Arrasto sakona uzten duen esperientzia da: geure kabuz zerbait (edozer) pentsatzeko gai izan bagara, berriz ere egin ahal izango dugu.

Hori, Foucaultek, sarritan marxismoarekin lotzen zuen “jarrera profetikoa” deitu zion horren aurkakoa da: pentsamendu mobilizatzailea, baina egiaz pentsamendua desmobilizatzea lortzen duena. Nola? 1) beharizan historikoa eta lortu beharreko helburuak nahasiz, hauek errealitatearen joanean aurreidatzirik baleude bezala (“badator kapitalismoaren amaiera”, etab.); 2) “borroken alde ilunak eta bakartiak” estaliz: zailtasunak, errealitatearen kontraesanak eta argi-ilunak, borrokaren batek arretea mediatikorik eta fokuen argirik ez dueneko isiltasun eta ikusezintasun faseak; eta 3) etengabe tesi batzueganako gure atxikimendua bilatuz, baina inolako lan pertsonalik eskatu gabe.

Nondik datorren sekula jakin ez, eta gertatzen dena deskribatzen duen off-eko ahotsaren modukoa den nagusitasunezko jarrera profetikoaren orde, Foucaultek teoria “erreminta-kaxa” bezala ulertzen du. Ez kasu guztietarako balio duen sistema teorikoa bailitzan, indar-harreman konkretu baten berezko logika argitzeko tresna egoki bezala baizik. Ez diagnostiko itxi eta perfektu bezala, norbere kabuz doitzen ikasi beharreko betaurrekoak balira baizik. Bestearen aktibazioa eskatzen duen (bi norabidetan) amaitu gabeko pentsamendua. “Edozeinek balizko borrokaren batean erabiliak izateko moduko egiazko efektuak sortu nahi nituzke, asmatzeko dauden formetan eta definitzeko dauden antolabideetan; nire arrazoibidearen amaieran askatasun hori uzten dut harekin zerbait egin nahi duenarentzat”.

Teoria erreminta-kaxa bezala ulertzen duen intelektuala (edozein) ez da gurua, orakulua edota gidaria, Foucaultek “berariazko intelektuala” deitu zuena baizik. Ez balore unibertsalen bozeramailea, egoera konkretuena baizik. Ez jarraitu beharreko ildo marrazten duena, libreki erabil daitezkeen tresnak ematen dituen baizik. Ez guztia dakien off-eko ahotsa, borroka baten potentziaren luzapena baizik.

Pluralean pentsatzea

1978ko tailer haietan eztabaida “sakonki politikoak” eman ziren; hala ere, Foucaultek nahiago izan zuen “kultura mobilizazio” batetaz hitz egin. Zergatik? Uste dut Foucaultek

han nabaritu zuena ikusteko eta pentsatzeko moduetan aldaketa bat izan zela. Hau da, kultura edota paradigma aldaketa. Bera eskatzen ari zen “irudimen politiko berriaren” elementu batzuk hain zuzen ere.

Honela defini genezake agian elementu horietako bat: pluralean pentsatzea. Adibidez, boterea Estatuaren monopolio bezala ez ulertzea, indarren eremu sozial bezala baizik; edo erresistentziak partidu politikoen monopolio bailiren, baizik eta edonon, edozeinen esku dauden aukera bezala; edota, jakitea, espezialisten eta adituen monopolio balitz beharrean, guztiok erabili eta ekarpenak egin diezazkiogun egilerik eta jaberik gabeko erreminta-kaxa bezala.

Gure une historikoa 70 hamarkadako urte haietakoaren aldean ezberdina da, noski, baina, ez al da oraindik premiazko beharra pluralean pentsatzea, erdigunerik gabe? Aldaketa soziala pentsatu eta egitea, ez plano bakar batean ematen den zerbait bezala (partiduak-hauteskundeak-botere politikoa), baizik eta denboraren, espazioaren eta aktoreen pluraltasun batetik?

“Politika zaharraren” eta “politika berriaren” artean bereizteko irizpide bat, denbora-irizpide soil bat baino, gako hau izan liteke: pluralean pentsatu edo norbere buruan pentsatu (erdigune bezala).

Hala, politika zaharra etengabe birzentralizatzen den hura litzateke, energia sozial guztiak denbora, leku eta aktore gutxi batzuen baitan metatzen dituen. Gune gutxi batzuetan boterea pilatuko lukete gainerakoen geldotasunaren eta desertzioaren kontura (efikaziaren izenean betiere, etab.).

Bere aldetik, politika berria, etengabe erdigunea husten diharduena litzateke gainerakoa indartuz. Espazio pribilegiatu batzuetara mugatu beharrean eskuhartze politikoaren aukerak zabaltzen dituen, ikusle hutsak sorrarazi ordez edozeinen gaitasunak (egiteko, esateko, pentsatzeko) biderkatzen dituen, elkarrizketak aktibatzen dituen eta ez monologoak.

Foucaultengandik gaur jaso dezakegun irakaspenetako bat da pentsamendu politikoaren heldutasuna ez datzala txikitik handira igarotzean edo kaleetatik instituzioetara “jauzi” egitean (ezta kontrakoan ere), baizik eta, azken beltzean, erregea gillotinatzean, eta, soilik plurala (edo pluralean) izango den aldaketa bultzatzeko hizkuntzak eta mapak asmatzean.